



consumes



MANIFESTUA

KONTSUMITZAILEAK BENETAN ETA ERAGINKORTASUNEZ BABESTEAREN ALDE

KONTSUMITZAILEAK ETA EZ INTERES PRIBATUAK BABESTUKO DITUEN EKINTZA KOLEKTIBOEI BURUZKO LEGE BATEN ALDE

Kontsumitzaileen alde eta haiekin lanean 50 urte baino gehiago daramatzagun kontsumitzaileen elkarteok gure ahotsa altxatzen dugu Ekintza Kolektiboari buruzko Lege Proiektu baten aurrean. Izan ere, **egungo idazkerarekin ez ditu kontsumitzaileen eskubideak behar bezala babestuko; aitzitik, ondorio kaltegarriak ekarriko ditu: beste eragile batzuk izango dira onuradunak eta babestu beharrekoak babesgabe utziko ditu.**

1. Kontsumitzaileen eta kontsumitzaileentzat den Prozedura bat, baina kontsumitzaile gabe.

Legez aurreikusitako “opt-out” sistemak —zeinaren bidez kontsumitzaileak auzi kolektibo batean sartzen diren aurretiazko jakinarazpenik eta borondate adierazpenik gabe— ez ditu haien eskubideak behar bezala babesten. Behar-beharrezkoa da kontsumitzaileei prozesu judizialeko une garrantzitsu bakoitzaren berri pertsonalki ematea, dokumentazioa biltzea haien kalte-ordaina bermatzeko eta auziari ekin aurretik kaltetu kolektiboa zehaztasunez identifikatzea. Hori ezin da bermatu “opt-out” sistemarekin.

Ez da kontsumitzailea babesten auzi kolektibo indemnizatorio bat prestatuz, honek ezertxo ere jakin gabe, zenbat diren jakin gabe, auzian gertatzen diren une garrantzitsuen berri eman gabe, aurrez dokumentazio bilketarik egin gabe haiek ebazpen batez baliatu ote daitezkeen ebaluatzeko, edo prozesua luzatuz gero (adibidez, Auzitegi Gorenera heltzen den arte zazpi urte edo gehiago igarotzen badira) frogak dagoeneko ez direlako existitzen. Are gehiago, 3.000 euroko muga gainditzen ez duten kontsumo erreklamazioetan—ohikoa den egoera— sistemaren inposizio automatikoa ezartzen duenean, babesa are gehiago ahultzen da.

Manifestu hau sinatzen dugun kontsumitzaileen elkarteok uste dugu opt-in sistema izan beharko litzatekeela orokorrean prozedura kolektiboetarako irizpidea. Hala ere, kontsumitzaileen interes difusoei buruzko prozeduretan, erakunde gaituek “opt-out”



consumes

eka ACUV

sistemaren aplikazioa balora dezakete, beren diskrezioan. Entitate hauek arau-haustez eta kaltetu kolektiboaren izaera zabalaz edo zehazgaitasunaz jakitun izanik, ondorengo neurriak hartu beharko lituzkete: (i) kaltetuen identifikazioa lortzeko beharrezkoak diren prozedura judizial egokiak abiaraztea (adibidez, aurretiazko identifikazio-diligentziak), (ii) ekintzaren zabalkundea bermatzea, kontsumitzaile kaltetuengana informazioa helarazteko, (iii) akordio judizialetik kanpoko edo epaia eragingarria bada, horrek kontsumitzaileengan eragin zuzena izango duela bermatzea.

2. Kontsumitzaileen elkarten desagerpen auresangarria.

Lege Proiektuak ez ditu kontuan hartzen Espainiako Gizarte Ekonomikoko eta Sozialeko Kontseiluaren nahiz Fiskaltzaren txostenak, zeinek azpimarratzen baitute ordezkartasuna ezinbesteko betekizuna dela kontsumitzaileen elkarte batek haien interesak legitimitatez defendatu ahal izateko. Manifestu hau sinatzen dugun elkarteetako batzuek 50 urte baino gehiagoko esperientzia dugu, eta gure ezagutza eta jardura funtsezkoak dira ekintza kolektiboek arrakasta izan dezaten.

Horregatik, entitate gaitua izateko baimena elkarte ordezkagarri eta benetako jardura egiaztatzen duten erakundeei bakarrik eman behar zaie, kontsumitzaileen interesekin zerikusirik ez duten erakunde oportunisten sarrera saihestuz eta Espainiako kontsumitzaileen mugimenduaren desegitea ekidinez.

Kontsumitzaileen elkarten jardura orokorrean, eta bereziki judizialean, ezin da ulertu benetan ordezkatzan ez dituzten interesengatik jarduten badute. Interes legítimo babestuaren ulermena ezinbestekoa da ondorioztatzeko kontsumitzaileen elkarte batek ez duela legitimaziorik izango bere bazkideak, jarduten duen lurraldea eta, ondorioz, kaltetu diren kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordezkatzan ez baditu.

Lege Proiektuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/1828 Zuzentarauaren 4.3 artikulua jasotzen badu ere, entitate gaituen izendapenerako finkatu duen irizpide bakarra erakundearen jardura justifikatzea eta denbora-irizpide bat ezartzea da (12 hilabetekoa kasu honetan), nahikoa ez dena kontsumitzaileen elkarte egiaztatuak eta finkatuak eta ad-hoc sortutako erakunde oportunistak bereizteko.

Hau guztiagatik, lege-garapena ordezkartasunaren mantentzera bideratu behar da, hau izanik ezinbestez bete beharreko betekizuna, Zuzentarauak berak ezarritakoarekin bat etorriz. Helburua da ordezkartza-ekintzen funtzionamendua eraginkorra eta efizientea izatea, estatu kideek hautatzen dituzten irizpideak edozein izanik ere.



Legitimazioaren betekizunak zorrozteak erantzukizuna eta konfiantza bultzatzen ditu bai kolektiboaren ordezkartza-sisteman, bai oro har justizia sisteman.

3. Denboraren faktorea eta babes judizial eraginkorra.

“Lehentasun kronologikoaren printzipioak” (“first to file”) aurkeztutako demanda azkarrek lehentasuna izatea dakar, eta horrek kalte egiten die kontsumitzaileei, ordezkartza egokia eta prestaketa teknikoa alde batera utzita. Proposatzen dugu auzitegiek zehaztea zein demandak defendatzen dituen hobekien kaltetuak, horrela benetako babes judiziala bermatuz.

Proiektuak aurreikusitako irizpide bakarra lehentasun kronologikoa da kasu berean ekintza kolektibo bat baino gehiago aurkezten direnean. Honek kontsumitzaileen interesen aurkako pizgarriak sortzen ditu eta justizia sistemaren funtzionamendu egokia oztopatzen du. Azkartasuna lehenesten da ordezkartza egokiaren aurretik eta horrek lasterketa bat sortzen du demandak aurkezteko, prestaketa teknikoaren kaltetan.

Horregatik, proposatzen dugu auzitegiek izan dezatela eskumena kasuz kasu aztertzeke zein demandak eskaintzen duen kontsumitzaileen interesen babesik onena. Horrela, aurkeztutako ekintzen artean egokiena hautatu ahal izango dute.

Irizpide hau mantentzeak honako ondorio kaltegarriak izan ditzake:

- Behar bezala prestatu gabeko demandak presaka aurkeztea.
- Ikerketa sakonagoak eta prestaketa egokiak desinzentibatzea.
- Ordezkaritza egokia eskaini zezakeen entitatearen kalitatea eta esperientzia baztertzea.
- Ordezkaritza kolektiboaren lehia eraginkorra murriztea.

Ilido horretan, elkarte batek gabezia teknikoak dituen presazko demanda bat aurkez dezake, arazoa behar bezala aztertu duen eta estrategia prozesal hobe prestatu duen erakunde batek geroago hobeto oinarritutako ekintza bat blokeatuz. Kontsumitzaileak ordezkartza azpioptimo bati lotuta geratuko lirateke, haien babes judizial eraginkorrari kalte eginez eta konpentsazio-aukerak murriztuz.

Ondorioz, Espainiako kontsumitzaileen interesak azkartasuna zorrotasun teknikoaren gaintik lehenesten dutenen esku egongo lirateke, eta ziurgabetasun nabarmeneko testuinguru batean lan egitea onartzen dutenen esku. Horrek prozeduraren arrakastaren azken aukerak murrizten ditu, irudikapenik onena nork eskaintzen duen ez jakitean.



Hori guztia dela eta, artikulua idazketak kontsumitzaileen interesei erreparatu behar die eta auzitegiei eman behar die eskumena erabakitzeko zein ordezkari den egokiena.

4. Auzitegietatik kanpoko gatazken konponbideak aukera erreal izateari uzten dio.

Lege Proiektuak zaildu egiten ditu auzibidetik kanpoko akordioak eta gatazkek konpontzeko alternatibak, eta horrela, kontsumitzaileentzat benetako aukera bihurtzea eragozten du.

Egoera hau ez dator bat duela gutxi onartutako Efizientzia Legearekin, zeinak jurisdikzio-bideari ekin aurretik gatazkek konpontzeko bitarteko alternatiboak erabiltzea eskatzen baitu, aldeek negoziatzeko eta epaitegien zama arintzeko. Baina ekintza kolektiboetarako aurreikusitako “first to file” printzipioak kontrako pizgarriak sortzen ditu, eta horrek oztopatu egiten du demanda aurretik benetako negoziazio bat izatea.

Bestetik, kontsumitzaile kaltetuak zenbaki huts gisa erabiltzen dira enpresari presioa egiteko eta akordio batera irits dadin, baina inor ez da arduratzen benetan kalte-ordaina jasoko duten ala ez.

Gainera, Lege Proiektuak aurreikusten du soberakina (batzuetan ezarritako kopuruaren %90era arte irits daitekeena) bueltan ematea, eta horrek are zailagoa egiten du akordio extrajudizialak lortzea, enpresa demandatuak ezin baitu inolako zenbatekorik berreskuratu. Horrek aukera gisa erakargarritasuna kentzen dio akordioari.

Halaber, ez da aztertu Proiektuak izan dezakeen eragina 30 urte baino gehiago daramatzan Kontsumoko Arbitraje Sistemarekin, zeina doakoa eta bizkorra den eta erreklamazio ugari modu eraginkorrean ebazten dituen.

5. Justiziaren merkantilizazioa geldiarazi, inbertsio-funtsen eta bulego handien negozioaren aurrean.

Ezin dugu onartu ekintza kolektiboak bulego handien eta auzi-funtsen negozio bihurtzea, kontsumitzaileen benetako kalte-ordainaren kaltetan eta kontsumitzaileen elkarrean desagerpena eraginez.

Lege Proiektuak ez du proposatzen ekintza kolektiboetarako finantzaketa publikorik, eta horrek merkantilizazioa sustatzen du. Inbertsio-funts eta abokatu bulego handiek beren



consumes



interes propioak lehenesten dituzte kontsumitzaileen kaltetan, eta estrategia juridikoak, prozesu-aukerak eta hornitzaileak beren irizpideen arabera ezartzen dituzte.

Horregatik, beharrezkoa da, besteak beste, funts horien ordainsari-portzentajeak mugatzea. Finantzaketa-akordio baten baldintzak neurritz kanpokoak izango dira, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ebazpenaren bidez benetan ordaindutako kopuru osoaren %10etik gorako ordainsaria jasotzen badu finantzatzaileak. Gainera, ordainsari hori, betiere, demandatutako entitateak bere gain hartu beharko du kostuak bere gain hartzen baditu epaian.

Manifestu hau sinatzen dugun erakundeok dei egiten diogu legegileari, komunikabideei eta herritarrei oro har:

Ekintza Kolektiboen Lege bidezko, garden eta eraginkor baten alde egin dezagun, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen benetako babesa bermatuko duena Espainian. Kontsumitzaileen elkarteak sendotuko dituen eta justizia benetan herritarrengana iritsiko dela ziurtatuko duen lege-esparru baten alde!

-CONSUMES

**Unión de Consumidores de Galicia Unión de Consumidores de Cantabria
Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna-EHKB/UCE Unió de Consumidors
de Catalunya**

**Unión de Consumidores de Castilla y León Unión de Consumidores de Aragón
Unió de Consumidors de la Comunitat Valenciana**

-OCU

-EKA / ACUV